

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Bixente Jauregi Jauregi

*Bergara,
Gipuzkoa
(1929-2019)*

Aurkibidea



Biografia



Zubieta kalean jaio zen Bixente. Aita antzuolarra zuen, eta ama, berriz, urretxuarra. Bergarako Seminarioan hasi zen eskolan, eta Elementalean bukatu zituen ikasketak. Gero Labe Garaietan egin zuen lan, delineatzaile postuan. Pilotari profesional gisa jokatuakoa. Pilotari buruzko hainbat azalpen ematen ditu; enpresek pilotaren historian eta garapenean izan duten eragina aipatzen du, besteak beste. Bera gaztea zenean, Zubieta (Zubitta) kalea oso bizirik omen zegoen. Bertako denda, zerbitzu, tailer, kale-baserri, ortu, eta abar ekartzen ditu gogora. Bixenteren aita harakina ("Altzeta") izan eta gero, argazkigintzara pasa zen eta horretan eman zuen bizi guztia. Aitaren 20.000 argazkiko fondoa, Bergarako 40 urteko historia argazkitan azaltzen duena, Bixenteren familiak Udalari eman zion. Ascensión Saez de Jauregirekin ezkondu zen Bixente, eta seme bi izan zituzten.

Zintak

BER-302

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2011-01-10
- **Iraupena:** 56 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

BER-303

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2011-01-10
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Txanponenean, ganadua

- **Erref:** BER-302/004
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:01:56. **Bukatu:** 00:05:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Zubietan jaioa, bertan bizi izan da beti. Etxeak nola aldatu diren. Txanponenean ganadua gordetzen zuten. Frontoi aurrean egiten zen ganadua feria, eta probalekua ere hor zegoen. Zubieta osteko baratzeak.</p>

2. "Altzeta" harategia

- **Erref:** BER-302/005
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:05:14. **Bukatu:** 00:08:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Mutikotan aitonarekin ibiltzen zen baratzean. Argazki batean, ganadua eramaten agertzen da, bost bat urterekin. Aitona hargina zen, eta aita harekin batera ibiltzen zen, baina gero harategia hartu zuen Komenio kalean (ondoren osaba geratu zen harekin). "Altzeta" esaten diete.</p>

3. Etxeko galgoa eta inguruko oiloak

- **Erref:** BER-302/009
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:08:41. **Bukatu:** 00:11:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Mutikotan hiltégira joaten zen, ganadua hiltzen ikustera. Lehengo argazkietan galgo bat agertzen da; baratzean izaten zuten eta hil egin zuten, ihes egin eta inguruko oiloei eraso egin zielako. Baratzean osabak 40 bat oilo izaten zituen, eta txabola dotorea zuen.

4. Eskolan gerraostean, dena erdaraz

- **Erref:** BER-302/010
- **Iraupena:** 0:04:07. **Hasi:** 00:11:22. **Bukatu:** 00:15:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolan seminarioan eta marianistekin ibili zen, eta gero elementalean. Gerra bukatu zenean hasi zen eskolan. Erdaraz ikasi zuen dena. Ez dago euskaraz alfabetatuta eta pena ematen dio. Marianistetan zigorra zuten euskaraz eginez gero.

5. Pilotan umetatik

- **Erref:** BER-302/011
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:15:29. **Bukatu:** 00:16:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Pilotan ibiltzen zen mutikotan, eskuz. Etxe aurrean ibiltzen zen, kotxe gutxi ibiltzen zen eta. Frontoira ere joaten ziren. Futbolearen ere ibiltzen zen, baina pilota nahiago. Pilota partida onak izaten ziren.

6. Bergarako pilota giroa; pilota distrituak

- **Erref:** BER-302/012
- **Iraupena:** 0:04:42. **Hasi:** 00:16:48. **Bukatu:** 00:21:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Afizionatutan eta profesional moduan ibili zen jokatzeko. Gallastegi pilotaria. Simon Arrieta eta aita bera pilotazaleak ziren. Pilota distrituak sortu ziren gerraostean, eta jokatzera Eibarrera joan behar zuten bailarako denek. Jose Lopetegi zen Gipuzkoako pilota federazioko zuzendaria. Enpresek erabakitzen zuten partiden kontua.

7. Pilotarien baldintzak

- **Erref:** BER-302/013
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:21:30. **Bukatu:** 00:22:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Pilotari moduan gertatu zitzaion kasua kontatzen du: kontratuan jartzen zuen frontoian min hartuz gero, bere kontura zela. Sindikatu bertikala zen ordukoa.

8. Pilota mundua lehen eta orain

- **Erref:** BER-302/017
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 00:29:34. **Bukatu:** 00:33:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

'Empresas unidas' desagertzeak ekarri zuen Bergarako pilota giroaren gainbehera, neurri batean. Lehen askoz pilotari gehiago kontratatzen zituzten. Kontratazio erak nola aldatu diren. Telebistari esker kobratzen dituzte horrelako soldatak orain.

9. Pilota gero eta azkarragoak

- **Erref:** BER-302/019
- **Iraupena:** 0:05:29. **Hasi:** 00:35:06. **Bukatu:** 00:40:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Lehen pilotak eta oraingoak diferenteak dira. Orain pilotariak hobeto prestatuta daude, baina pilotak ere aldatu dira. Frontoiak ere okerrago zeuden lehen. Jokalariak (dirua jokatzen zutenek) indarra zuten lehen eta gehiago ziren; orain telebista da indar handiena duena.

10. Lehengo tongoak

- **Erref:** BER-302/025
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:48:51. **Bukatu:** 00:52:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Tongoak izaten ziren lehen. 19 urterekin Bergaran gertatu zitzaiona, Pazkoatan, Alberdi pilotariaren kontra jokatuta: berak irabazi zuen. Handik bi urtera jakin zuen tongoa izan zela, irabazten utzi ziola.

11. Lehengo tongoak II

- **Erref:** BER-302/027
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 00:52:32. **Bukatu:** 00:53:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Arrasateko pilotari batekin gertatu zitzaiena. Nahita galdu zuen bere bikoteak.
Tongoa izan zen hura ere.

Jauregi Jauregi, Bixente | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-06-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com